

**2009KO MARTXOAREN 24AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita laua

HILABETEA: Martxo

URTEA: Bi mila eta bederatz

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatz

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Fernando Boada González
Begoña Lasa Royuela
Julio Herreros Serna

ETORRI GABEAK: Jon Kortaberria Lasa

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2009ko martxoaren 10eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute, berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITUZA. Adjudikaziodun enpresaren alde konpentsazioa kudeaketan desoreka ekonomikoa izateagatik.

Alkateak ezagutzera eman du 2009ko martxoaren 23ko kontratazio-mahaiaren proposamena:

“**BILDURIK**

Lehendakaria: Patxi Plazaola Muguruza

Bokalak: Malu Vallés Fernández (EAJ)
Manoli Uranga (PSE-EE/PSOE)
Begoña Lasa (EB)
Julio Herreros (PP)

Gizarte langilea: Karmele Elola Loidi
Kontuhartzailea: Lurdes Alegria Lasa
Idazkaria: Itziar Arostegi Apaolaza

EZ ETORRIA

Josi Insausti Mújica (EA)

1.- Kontratazio mahaia osatzen duten zerbitzu teknikoek 2009ko martxoaren 12an egindako txostenaren berri eman da, hau da :

« AURREKARIAK

2005. urteko bukaeran, etxez-etxeke zerbitzua lehiaketa bidez kontratatzeko deialdia egin zen. Licitazio prezioa orduko 16,48 €koa zen (BEZ barne) eta urtean zehar eman beharreko 24.000 orduko estimazioa egin zen.

Zerbitzua 16,40 €/orduko prezioan esleitu zen eta adjudikaziodun enpresak aurreikusten zuen absentismoa nahiz enpresaren onura %2koa izan zen.

Kontratua urte baterako sinatu zen eta urtero luzatzen joan da, baldintza agirian aurreikusitako eta 2009ko abenduaren 31n amaitzen diren lau urte burutu arte.

2008ko azaroaren 24ko datarekin GOXARAK, zerbitzuaren emaitza defizitarioaren berri eman eta 2008an enpresak izandako galera ekonomikoa estaltzea eskatu du. 2009ko urtarrilaren 29ko datadun idatziaren bitartez zerbitzua jasotzeko eskarien gutxitzean oinarritzen dute jasaten ari diren egoera ekonomikoa, beraien ustetan ondorengoengatik: Mendekotasun Legeak arautzen dituen mendekotasuna duten pertsonen arretagatik prestazio ekonomiko berriak, zerbitzuko erabiltzailearen ekarpena kalkulatzeko sistema berria eta langileriaren baja kopuru handia.

GOXARAK aurkeztutako datuak azertu ondoren, gertatzen da 2008an soilik eman dela orduen gutxitzea (22.730), hasieran estimatutakoekin konparatuz, baina ez horrela 2007an (24.328) ezta ere 2006an (25.472,50), urte honetan lizitaziorako oinarritzat hartutako kopurua gainditzen delako.

Egia da zerbitzua jasotzeko eskaerak aldeztatik aurretik aurreikusi ezinezko arrazoiengatik gutxitu direla, baina horien artean ezin daiteke absentismoa kontsideratu, Administrazioarekin kontratatzen duten enpresek bere arrisku eta zortera egiten baitute. Baina oreka ekonomikoa errespetatu ahal izateko, logikoa dirudi aurkeztutako eskaera zati batean onartzea, enpresak bere eskaintza aurkezterakoan lehenengo bi argudioak aurreikusi ezin izan zituelako. Horren ondorioz izenpetzen dutenek Kontratazio Mahaiari ondorengo erabaki-proposamena egiten diote:

GOXARA, S.L. enpresari, 2008an izandako desoreka ekonomikoarengatik, **24.015,84 euroko** diru-konpentsazioa ordaintzea, 2008 urtean izandako diru-sarreraren

(374.934,70 €) eta 2007 urtean (398.950,54 = 382.870,00 + KPI (4,2%)) izandakoen arteko diferentziaren arabera kalkulatuta.”

2.- Gizarte Ongizate batzordeko lehendakariak, ordea, izandako desoreka ekonomikoarengatik, **40.248,82 euroko** diru-konpentsazioa proposatzen du, enpresak porrota egin dezakeen arriskuaren ustea dagoelako eta horrek zerbitzua etetea suposatuko lukeelako. Aipatutako diru-kopurua ondorengoaren arabera kalkulatu da: 2007 eta 2008 urteetako zerbitzugintzako ordu kopurua 24.600 ordu onartuz eta urte bakoitzeko %1eko enpresa-irabazia kontsideratuz.

Aldi berean ondorengoa proposatzen da: 2009. urtean Goxara enpresari hileko ordaindu beharrekoa 2.050 ordu kopuruaren arabera kalkulatzea, benetan ematen diren zerbitzu orduak kontutan izan gabe.

Beraz, Kontratazio Mahaiak, teknikarien kontrako iritzien gainera, emandako txostenean xedatutakoari eusten diotelako eta bigarrenengo proposamena legez aurkakoa delako, kontratazio-organoari ondorengo akordio proposamena egiten dio:

GOXARA, S.L. enpresari 2008an izandako desoreka ekonomikoarengatik, 40.248,82 euroko diru-konpentsazioa, nahiz 2009.urtean hileko 2.050 ordu kopuruaren arabera ordaintzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Aitor Aldasoro eta Julio Herreros jaunak kontratazio-mahaiak proposatutakoarekin ados azaldu dira.

Fernando Boada jauna, aldiz, abstenitu egin da gai honi buruz erabakitzen denarekiko ziurtasuna ez dutelako eta pentsatzen dutelako, zerbitzu-ordu batzuk enpresari bermatu orde egin beharko litzatekeela zerbitzua emateko baldintzak aztertu, zerbitzu hori jasotzeko eskubidea pertsona gehiagok izan dezaten.

Horren ondorioz bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ, EB, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PSE-EE/PSOE)

3.- INFORMAZIOA. Hainbat gaietarako buruz informazioa.

Alkateak ondorengo informazioa eman du :

- Loinatz jaiak prestakuntza.

- Igartza saria irabazi duen liburuaren aurkezpena. Tokia: burdinola.

Eguna: 09-03-25. ordua: 19,00.

- Denbora gutxi barru haurtzaindegirako beste bi gela irekiko dira.
- Lanpostuei buruzko hainbat xehetasun.

4.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, goizeko bederatziak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.